

**BERMEOKO UDALEKO BERDINTASUN PLANA EXEKUTATU ETA GARATZEKO
ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PUBLIZITATE BAKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA**

Espediente zenbakia: KON_NE_G0007

LABURPEN TAULA

ADJUDIKATZAILEA

Erakundea: Bermeoko Udala.

IFZ: P4802100J

NUTS kodea: ES213.

Telefono zenbakia: 94 617 91 00.

Faxa: 94 688 23 12

Helbidea: Irakaskintza 14-16, 48370 Bermeo (Bizkaia).

Helbide elektronikoa: antolakuntza@bermeo.eus.

Egoitza Elektronikoa: <http://bermeo.eus>

Espedientearen sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Sail arduradunaren helbide elektronikoa:

idazkaritzakoat@bermeo.eus.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Xedea: Berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratua.

1.2 Ase gura diren beharrianak: Bermeoko Udalak Berdintasun Plana onartuta dauka eta, plan hori exekutatu eta ekintzak garatzeko beharrezko asistentziaren beharra dago.

1.3 Loteak: Zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, kontratua ezin da loteetan banatu, lanaren kongruentzia eta koordinazioa bermatuta garatzeko ezinbestekoa delako enpresa bakarrak garatzea zerbitzua bere osotasunean.

1.4 CPV: 98200000-5 Aukera berdintasunari buruzko aholkularitza zerbitzuak

2. ORGANO ESKUDUNA

Tokiko Gobernu Batzarra

SPKLren 61. artikulua eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahaldun hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduraduna: Idazkaritza saileko teknikaria

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren iraupen epea: Kontratu osoa betetzeko epea hau da: urtebete, urtez urte lau urtera arte luzatu ahal izango dena.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

5.1 Lizitazio prezioa: 24.790,00 euro, BEZa kanpo.

5.2 Luzapenen prezioa: 74.370,00 euro, BEZa kanpo.

Balio estimatua danatara (luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne): 99.160,00 euro, BEZa kanpo.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, BEZa barne: 29.996,00 euro.

- Kostu zuzenak: 790,00 euro
- Zeharkako kostuak: 5.706,00 euro
- Langileria kostuak: 23.500,00 euro.

7. FINANTZIAZIOA

Aplikagarria den partida hau izango da: 00800.92014-2279965

8. PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA

Oroharreko prezioa.

9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez.

10. BERMEAK

10.1 Behin-behineko bermea:

Ez.

10.2 Behin betiko bermea:

Bai: Esleipen prezioaren % 5.

11. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratuaren exekuzioa azpikontratatu eta laga daiteke, administrazio baldintza zehatzen orri hauetako 17. atalaren arabera.

12. BERME EPEA

Ez da aurreikusten.

13. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

13.1 Prozedura: Publizitate gabeko prozedura negoziatua

Tramitazioa: Arrunta

13.2 Esleipen irizpideak:

- a) Prezioa: 51 puntu.
- b) Lan metodologiaren kalitatea: 27 puntu.
- c) Zerbitzua garatzeko eskaintako ordu kopurua eta prestasuna: 12 puntu.
- d) Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapenen maila neurtzeko ebaluaketa sistema eta adierazleen egokitasuna: 10 puntu.

13.3 Formulak:

a) Prezioa:

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa zehazteko, honela jokatu da:

Beharpenik handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

$$P_i = 51 \times (B_i/B_m)$$

Beharpen handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa ez bada, eskaintza bakoitzak bere baja-portzentajearekiko proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

$$P_i = 51 \times (B_i/5)$$

Aldagaien definizioa:

P_i = "i" lizitazailearen puntuazioa

B_m = Gehienezko baja

B_i = "i" lizitazailearen baja

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira. Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

b) Lan metodologiaren kalitatea:

Zerbitzua zelan garatuko den puntuatuko da. Horretarako, lehiatzaileek, berdintasun plana zelan garatuko duten deskribatu beharko dute, helburuak, zerbitzuaren ezaugarriak eta lan metodologia jasota. Burutu beharreko ekintzak zelan garatuko duten ere adierazi beharko dute.

Zerbitzua garatzeko proiektuak daukan kalitatea, koherentzia eta egokitasuna neurtuko dira atal honetan, modu honetan egingo dena:

MAILA OSO ALTUA	MAILA ALTUA	MAILA NAHIKOA	MAILA BAXUA
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara osorik eta espezifikoki moldatzen da (12 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara ia osorik eta espezifikotasun altuarekin moldatzen da, baina ez guztiz (8 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara erdizka eta espezifikotasun baxuarekin moldatzen (4 puntu)	Ez da Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara moldatzen, orokorra da eta espezifikotasun oso baxua edo hutsala da (0 puntu)
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal guztiak bere osotasunean eta ekintza guztiak aitatu eta garatzen dira (12 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintza gehienak aitatu eta garatzen dira (8 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintzaren erdiak aitatu eta garatzen dira (4 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintzaren erdiak baino gutxiago aitatu eta garatzen dira (0 puntu)
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak oso egokiak eta eraginkorrak dira (3 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak egokiak eta eraginkorrak dira (2 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak nahikoak dira (1 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak ez dira nahikoak edo ez dira eraginkorrak (0 puntu)

c) Zerbitzua garatzeko eskaintako prestasuna:

Prestasun osoa eskaini ezker, ezelako ordu muga barik, 12 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, astelehenetik barikura eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik, 12 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 4 egunetan astelehena eta barikua bitartean, eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik, 10 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker 5 egunetan astelehenetik barikura, ezelako ordu muga barik 8 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 4 egunetan astelehena eta barikua bitartean, eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik 6 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 3 egunetan astelehena eta barikua bitartean, eta asteburuan egun baten, 4 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 2 egunetan astelehena eta barikua bitartean, eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik 2 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 3 egunetan astelehena eta barikua bitartean, ezelako ordu muga barik puntu 1 emango da.

d) *Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapenen maila neurtzeko ebaluaketa sistema eta adierazleen egokitasuna:*

Ebaluaketa sistemaren koherentzia eta betetze maila eta ekintzen lortzapenak neurtzeko baliagarria izatea modu honetan baloratuko da: 10 puntu oso egokia bada, 5 puntu nahiko egokia bada, 2,5 puntu eskasa bada eta 0 puntu oso desegokia bada.

Adierazleen egokitasuna baloratzeko, kontutan edukiko da adierazleak zehatzak eta argiak direla, aditz batekin hasten direla, kopuru bat jasotzen dutela, epe bat daukatela eta erantzule bat ezartzen dutela. Adierazleek baldintza guzti horiek betetzen badute eta neurketa egiteko baliagarriak badira, 10 puntu emango dira. Baldintza guzti horietako erdiak betetzen badituzte –zehatzak eta argiak izatea, aditz batekin hastea, kopuru bat jasotzea, epe bat edukitzea eta erantzule bat ezartzea-, eta baliagarriak badira neurketa egiteko, 5 puntu emango dira. Baldintza horietako herenak betetzen badituzte eta baliagarriak badira neurketa egiteko, 2,5 puntu emango dira. Baldintza horietatik herena baino gutxiagok betetzen badituzte, edota ez badira baliagarriak neurketa egiteko, 0 puntu emango dira.

14. KONTRATUA ANORMALKI BAXUTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

% 20ko beherapena kontratuaren lizitazio prezioaren gainean, BEZa sartu gabe.

15. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

15.1 Kontratatzeko gaitasuna

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten xede, helburu edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan daitezke soilik.

15.2 Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Irizpidea: Negozioen urteko bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumenik handiena duen urteari dagokiona.

Gutxieneko baldintza: Bolumen handieneko urteko negozio bolumenaren zenbatekoa ez izatea kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi baino handiagoa.

Egiaztapena: Erantzukizuneko aitortpena aurkeztuko da, baldintza agirietan dagoen eranskin ereduaren arabera. Erantzukizuneko aitortpena honela beteko da:

a) Onartutako eta Merkataritza Erregistroan edo enpresaburuak izena eman behar duen Erregistro Ofizialean gordetako urteko kontuetan ageri diren balioak jarri behar dira. Bermeoko Udalak dagokion erregistroan sartuz egingo ditu egiaztapenak.

b) Baliozko arrazoi batengatik, enpresa lizitatzailerak ez badu urteko konturik onartu eta gordailuan utzitako azken 3 urteetatik gorako zenbatekorik (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko obligaziorik ez duelako edo enpresa sortu berria delako), adierazpenean arrazoa adierazi beharko du.

c) Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuak eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoa adierazi duten enpresaburuak beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatu beharko dute, eta, horrez gain, erantzukizuneko aitortpenaz aparte, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenaren 200 ereduak edo balioak aurkeztu beharko dituzte.

(Dharra: Urteko negozio bolumena merkataritzako legerian ezarritako urteko kontuen erregelamenduzko ereduak galdu-irabazien kontuan ageri den negozio zifraren zenbateko garbia da.)

15.3 Kaudimen tekniko eta profesionala

Irizpidea: Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanetan esperientzia izatea eta ikasketatituluak zein hizkuntza eskakizunak izatea.

Gutxieneko baldintza:

- Azken hiru urteetan gauzatze handiena izan duen urtean metatutako urteko zenbatekoa, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo gorakoa izatea.

- Enpresaren plantillan dauden langileen ikasketatituluak eta profesionalak: zerbitzua garatuko duten langileek, goi-mailako lizentziadunak edo graduatuak izango dira eta gidatzeko baimena eduki beharko dute. Gainera, emakume eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa eduki beharko dute, gutxienez 150 orduko eta organo ofizial batek ziurtatua.

- Hizkuntza eskakizunak: zerbitzua garatuko duten langileek, lana euskaraz modu egokian gauzatzeko maila nahikoa eduki beharko dutela bermatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-esparru Komunaren C1 maila edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute.

Egiaztapena: Hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Baldintza agirien eranskin ereduaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, azken hiru urteetako gauzatzeko handieneko urteari dagokiona, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, jasotzen dituen. Zerbitzu edo lan horiek organo eskudunak luzatutako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean horrek emandako ziurtagiriaren bidez. EZ da beharrezkoa izango zerrendan agertzen diren zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztea, Bermeoko Udala bada hartzailea.

- Ikasketa-tituluen ziurtagiriak edo fotokopiak.

- Hizkuntza eskakizunen ziurtagiriak edo fotokopiak.

15.4 Sailkapena

Ez da eskatzen.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: <http://bermeo.eus/1470.html>

EPEA Egutegiko 15 egun, gonbitea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Prozeduran parte hartzeko eskaria, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengoko bost egunetan egin beharko da.

Artxiboai, honako izen orokorra jarriko zaie, artxibo bakoitzak edukiko duen azpitoluaren kalterik gabe: "BERDINTASUN PLANA EXEKUTATUTZEKO ZERBITZU KONTRATUA".

Artxiboetan txertatzen diren agiri guztiak digitalki sinatuta joan beharko dira.

17. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

- a) Baldintza teknikoan agirian, bere kasuan, exekuzio baldintza berezi gisa adierazitakoak.
- b) Izaera sozialekoak: baldintza agiri administratiboen 14. klausulan adierazitakoak.
- c) Datu pertsonalak tratatzeari buruzkoak: baldintza agiri administratiboen 15. klausulan adierazitakoak.

18. KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK

Kontsultak aurkezteko modua: idezkaritzakoat@bermeo.eus helbide elektronikora idazki bat bidaliz, baldintza agiri administratiboen eranskineko ereduaren arabera.

Kontsultak aurkezteko epe muga: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 5 egun natural lehenago.

Lizitzaile guztientzat interesgarriak diren egindako kontsulten erantzuna Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da: <http://www.bermeo.eus>

Kontsulten izaera loteslea: Bai

19. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Esleipendunak bere proposamena aurkeztean bere gain hartzen dituen betebeharrak gehigarrien kalterik gabe, ondorengo dokumentu hauek kontratu izaera izango dute: karatula, baldintza administratiboen agiria, baldintza teknikoak eta kontratua formalizatzeko agiria.

20. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, berraztertze errekurtsua aurkeztu daiteke, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

Era berean, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzibidea arautzen duen 29/1998 Legearekin bat.

ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PUBLIZITATE BAKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrian hauek ase gura dira.

Kontratua, **1.3 atalean** jasotako loteetan banatuko da.

Kontratuaren xedea ikusita, hornidura administrazio-kontratua da, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 17. eta 25. artikulua kontuan hartuta.

Kontratu hau burutzeko beharriana zerbitzua garatzeko udalaren berezko baliabide pertsonal eta teknikoen faltan oinarritzen da.

CPV: **1.4 atalean** zehaztutakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikulua eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **2. atalean** zehaztutakoa da.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zéin diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratu honen arduraduna laburpen taularen **3. atalean** zehazten dira.

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzua egiteko epea laburpen taularen **4. atalean** jasotakoa izango da.

Zerbitzua ez bada epe horretan egiten, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Hala ere, kontratu hau iraungitzean, ez bada berria esleitu eta interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte, beti ere gehienezko 9 hilabeteko epean, eta lizitazio iragarkia kontratua iraungi baino 3 hilabete arinago argitaratu bada; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratu honen balio estimatua, kontratuaren xede diren loteak kontutan edukita, laburpen taularen **5. atalean** jasotako moduan banatzen da.

Eta balio hori hartu da kontuan lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **6. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutututako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida lege zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da 2020 urteko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende geldituko da.

Aplikagarria den partida laburpen taularen **7. atalean** zehaztutakoa da.

9. NOLA ORDAINDU

Ordainketak hilerokoak izango dira. Kontratistak bere faktura auzetuko du hilabeteko zerbitzuagatik eta transferentzia bidez ordainduko zaio, faktura onartzeko prozedura bete ondoren.

Fakturarekin batera, egindako zerbitzuen eta izandako istiluen lan-partea aurkeztu beharko da.

Gainera, ez badira eransten zerbitzu- kontratu honetan diharduten langileen TC1 eta TC2 kotizazio boletinen kopiak eta guztien soldatak ordaindu izanaren egiaztapenak edo baliokideak ez dira izapidetuko hileko fakturak.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta berau garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, bai SPKLren 103. artikuluan ezarri denarekin bat etorritik, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Kontratuaren ezaugarriak kontutan edukita, ez da beharrezkoa ikusten behin-behineko bermea ezartzea parte hartzaileek proposamena mantentzen dutela bermatzeko, SPKLren 106.1 artikuluekin bat.

Behin betiko bermea:

SPKLko 107.1. artikuluan arautu denari jarraituta, ikuspegi ekonomikotik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak egiaztatu behar du esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea eratu duela –BEZ eta luzapenak kenduta–, eta, horretarako, errekerimendua jaso duen unetik hasita, hamar egun baliadun izango ditu.

Errekerimendua epe barruan behar bezala bete ezean, lizitatzailerak eskaintza atzera botatzen duela ulertuko da.

Bermea eratu daiteke SPKLko 108. artikuluan adierazten diren moduetatik edozeinetan, eskudirutan, abal baten bidez, balore publiko zein pribatuekin, kauzio-aseguruaren bidez, edo prezioaren zati bat atxikita, HAKLEOko 55. artikuluan eta hurrengoetan jaso diren modu eta baldintzetan.

Bermea abal edo kauzio-aseguru baten bidez eratuz gero, sinadurak legeztatu egin behar dira. Fede-emaile publiko batek egiaztatuko eta askietsiko ditu sinatzaileen ahalordeak, eta atzealdean jarriko du horren gaineko eginbidea.

SPKLko 108.2. artikuluekin bat etorritik, lizitatzailerak behin betiko bermea kontratuaren prezioaren zati bat atxikita eratzeko eska dezake: kontratistari ordaindu beharreko lehenengo fakturatik edo hurrengoetatik kopurua kenduko da, zenbateko osora heldu arte. Hartara, lizitatzailerak idatziz adieraziko dio hori kontratazio-organismoari aipatutako zazpi egun baliaduneko epean.

Egin beharreko zerbitzuak nolakoak diren jakinda, ez dago berme-aldirik. Hala ere, ez da behin betiko bermea itzuliko, harik eta kontratuaren indarraldia bukatu eta kontratuaren harrera

formala egin arte. Horren arabera, bermea itzul daiteke osorik edo zati batez, SPKLren 111. artikulua xedatzen duenarekin bat.

12. KONTRATUA BETETZEA

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean burutuko da, eta udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu daitezela agindu ahal izango du.

* Esleipendunak Bermeoko Udaleko zerbitzuei atxikitako langile guztien soldatak ordaindu beharko ditu legeak ezarritako epeetan.

Hori horrela, Udalak edozein momentutan eska dakioke esleipendunari langileek sinatutako egiaztagiria aurkeztea, non adierazten duten soldatak epe barruan jaso dituztela. Esleipendunak ez badu erantzuten, ulertuko da soldatak ez direla ordaindu epe barruan.

Esleipendunak ez baditu epe barruan soldatak ordaintzen, Udalak hurrengo zigorrak jar ditzake:

Soldata ordaintzeko berandutza aste bete baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren % 5a.

Soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren % 10a.

Soldata ordaintzeko berandutza hilabete baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Urte bateko epean, baten baino gehiagotan, soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

13. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu.

Bermeoko udalak, urtarrilaren 30eko, 171/2004 Errege Dekretuak garatzen duen, azaroaren 8ko, Laneko Arriskuen Prebentzioarako Legeko 24. artikulua, enpresa jardueren koordinazioaren arloko betekizunak bete behar ditu.

"enpresaburu nagusiak beraren jarduerari dagokion eta beraren beharlekuan egiten diren obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek prebentzio arautegia betetzen dutela zaintzeko betebeharra dauka".

"enpresaburu nagusiak bere lantokian batzen diren enpresa kontratista edo azpi-kontratistek euren artean beharrezko diren koordinazio bitartekoak ezarri dituztela konprobatu beharko du"

Aurreko araudia kontuan hartuta, laneko arriskuen prebentzio arloan koordinazio eta kooperazio lanak betetzeko helburuarekin, kontratuaren objektuan zehazten den jarduera hasi baino lehen esleipendunak **I. eranskinean** zehazten diren agiriak kreditatu beharko ditu.

Jasotako agiriak, saileko arduradunak, Bermeoko Udaleko laneko prebentzio zerbitzura bidaliko ditu, aurkeztutako agiriak konprobatzeko.

Behin dokumentazio guztia ondo dagoenean, laneko prebentzio teknikariak **Koordinazio fitxa** bete eta sinatuko du eta esleipendunari bidaliko dio, beharrezko diren bestelako informazio fitxekin, honek sinatuta entregatu dezan.

Esleipendunak **Koordinazio fitxa** sinatuta bidaltzen duenean koordinazioa burututa geratuko da. Koordinazioa burututa dagoenean saileko arduradunari komunikatuko zaio esleitu den zerbitzua hasteko.

Ez da lanik hasiko koordinazio fitxa alde biak sinatu arte.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Modu berean, sektoreko gertueneko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko die kontratu honekin zerikusia duten langileei.

Kontratu honen xedea gauzatzeko esleipendunak eskaintzen duen langileria guztia esleipendunaren plantillan egon behar da eta ez du udalarekin inolako lan-loturarik izango.

Kontratua osotasunean betetzeko kontratista izango da zerbitzua behar bezala antolatzeko erantzulea. Gainera, bere langileen gizarte eta lan eskubideak bermatzen direnaren erantzule izango da. Horietan, udalak ez du inolako zereginik izango.

Esleipendunak, ahal duen neurrian, zerbitzu hau prestatzeko langileen estabilitatea mantendu beharko du. Langileren bat ordezteko beharrezkoa bada, bermatu behar du ordezekoak pleguetan eta kontratuetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Udalari aldaketa horien berri eman beharko dio.

Esleipendunak betebeharrak zehatz betetzen direla bermatu beharko du uneoro, baita kontratuaren zatiren bat azpikontratatu bali ere, eta udalak, betebeharrak betetzen direla bermatzeko, egokiak diren ikuskapenak egin eta egoki deritzon agiriak aurkezteko errekerimendua egiteko ahalmena izango du.

Berton ezarritako betebeharrak funtsezkoak dira eta ez betetzeak kontratua suntsiarazteko arrazoia suposa dezake. Hala ere, ulertzen denean ekintza isolatua dela,

berreraman daitekeela eta suntsiaraztearekin interes orokorraren kontra joan daitekeela, suntsiaraztea alde batera utzi eta hurrengoko hertsapen-zigorra ezarriko da: esleitutako prezioaren (BEZa barne) % 1 eta % 5aren artekoa arau-hauste bakoitzeko. Portzentajea zehazteko orduan kontuan hartuko dira: larritasuna, berrerortzea eta fede txarra egon bada.

Zigor horietatik independientea da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordainen gainean kontratistak duen betebeharra.

Zigor eta kalte-ordainok ezartzeko espediente zehatzaile laburtua burutuko da.

Ezartzen diren zigor edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturretatik, behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

Edozelan ere, kontratistak administrazio-baldintza zehatzen orri honetan, baldintza teknikoaren orrietan edota kontratuetan ezartzen diren bestelako obligazioak bete beharko ditu.

14. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratazio berrien % 10, gutxienez, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango dira, besteak beste, honako profil hauetako batzuk:

- % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- 45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezian daudenak (12 hilabetetik gorakoak).

Pertsona horiek kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren gaitasun profesional eta pertsonalak izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzen duen plantillan sartu beharko dira, plantillako gainerako langileek dituzten lan baldintza beretan eta sektoreko hitzarmenaren arabera.

Horretarako, lan merkatuan sartzeko zailtasun partikularrak dituzten pertsonen kontratazioa egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Kontratutako langileen izenen zerrenda, Gizarte Segurantzako altaren eta lan-kontratuaren kopia, eta TC1 eta TC2en kopia.
 - b) Kontratutako pertsona-kopurua, horien profila eta kontratazioaren ezaugarriak egiaztatzen dituen ziurtagiria (lanbide-kategoria, kontratuaren iraupena eta urteko lanaldia). Beharrezkoa izanez gero, egiaztapen hau eskatu ahalko da:
- **% 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak:**
 - % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun mailaren ziurtagiriaren kopia, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren edo haren ordezkotako arauaren arabera.

- Ezintasun iraunkorreko pentsioa, guztizko, erabateko edo baliaezintasun handiko graduan, edo zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik erretiro-pentsioa onartzeko administrazio-ebazpenaren kopia.
- **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak:**

Genero-indarkeriaren aurkako prebentzio eta babes integralerako neurriei buruzko azaroaren 26ko 13/2007 Legearen 30. artikuluan edo haren ordezkotako arauan ezarritakoaren arabera egiaztatzen. Artikulu horren arabera, egoera hori frogatzeko bidea, ebazpen judizial baten ondorioz, funtsean, babes-agindua, kautelazko neurriak edo genero-indarkeriagatik kondena-epaia egiaztatzeko agiria izango da, ezartzen diren neurriak indarrean daudenean.
- **45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezian daudenak (12 hilabete baino gehiago):**
 - Indarrean dagoen NANaren kopia.
 - Langabezia-egoera egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, dagokion enplegu-bulegoak luzatua.

15. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

15.1 Konfidentzialtasuna

Kontratua betetzerakoan, bai kontratistak bai hari atxikitako pertsonak eta, hala badagokio, enpresa azpikontratistek eskuratzen duten informazio guztia isilpekoa da, eta sekretu profesionalaren betebeharraren mende dago, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik; beraz, isilpean gorde behar da, eta ez da inolaz ere, ez osorik ez zati batean, kontratuaren parte ez den pertsona fisiko edo juridikoren bat ordeztu behar, alde aurreko baimen espresua izan ezean.

Aurreko edozein pertsona fisiko edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, lanbide-sekretuaren betebeharra urratzen baditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera, dagokion erantzukizuna eta kalte-galerak eskatuko dira. Betebehar horiekin bete beharko da, nahiz eta kontratu-harremana amaitu.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatu behar ez diren lanetan, debekatuta dago datuetara sartzea, eta nahitaez isilpean gorde behar dira ezagut daitezkeenak.

15.2 Datu pertsonalen tratamendua

Esleipendun gertatzen den erakundeak datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzeari eta datu pertsonalak askatasunez zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua, 2018ko Babes Orokorrekoa, 3. Legea eta 2018ko Legea indargabetzen dituena.

Zerbitzua ematean datu pertsonalen tratamenduren bat izanez gero, entitate esleipendunak, gainera, klausula honetan adierazitakoa bete beharko du.

15.2.1 Tratamenduaren xedea

Esleipendun gertatzen den erakundeari ahalmena ematen zaio, tratamenduaren arduraduna izango baita, Bermeoko Udalak, tratamenduaren arduradunak, kontratatuko den

zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko. Datu horiek kontratuan edo esleipen-hartzailearekin sinatuko den hasiera-aktan zehaztuko dira.

15.2.2 Ukitutako informazioaren identifikazioa

Kontratazio-pleguaren xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, Bermeoko Udalak kontratuan edo hasierako aktan deskribatzen den informazioa emango dio esleipenduna den eta tratamenduaren arduraduna den erakundeari.

15.2.3 Iraupena

Klausula honetan adierazitakoak indarrean jarraituko du harreman lotesleak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan. Hala ere, datuak berrikusi, egiaztatu eta tratamenduaren arduradunaren zerbitzurako informazioa emateko, aldi behin azterketa egokiak egin ahal izango dira.

Zerrenda hori bukatuta, esleipendunak datu pertsonalak kendu beharko ditu tratamendu-arduradun gisa dituen betebeharrak buruzko hurrengo atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta, nolana ere, ez du kopiarik gorde beharko bere eskuetan, Bermeoko Udalak berariazko baimena eman ezean.

15.2.4 Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Esleipen-hartzailea den entitateak eta, hala badagokio, bere ardurapeko langileek betebeharrak izan behar dituzte:

a) Tratatu beharreko datu pertsonalak edo horiek sartzeko jasotzen direnak orri honen xede den xederako bakarrik erabiltzea. Datuak ezin izango dira erabili norberaren xedeetarako.

b) Bermeoko Udalaren jarraibideen arabera tratatu datuak.

c) Bermeoko Udalak egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa idatziz eramatea. Erregistro horretan honako hauek jasoko dira:

- Esleipendun gertatzen den erakundearen izena eta harremanetarako datuak eta, hala badagokio, datuak babesteko ordezkariaren datuak.
- Bilboko Udalaren kontura egindako tratamenduen kategoriak
- Aplikatu behar izanez gero, hauei buruzko segurtasun-neurri teknikoak eta antolamendukoak deskribatzea:

-Datu pertsonalak pseudonimizatu eta zifratzea.

-Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.

-Gorabehera fisiko edo teknikoren bat izanez gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea bizkor lehengoratzeko gaitasuna.

-Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

d) Erabiltzaileen lagapenak eta datuak: Oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi hirugarren pertsonari edo erakundeari, salbu eta ordezkaritza eta defentsa judizialaren esparruan hirugarren pertsona legitimatuek ezagutu behar duten informazioa.

e) Azpikontratazioa: Pleguak pleguaren xede diren jarduerak azpikontratatzeko aukera ematen duenean, eta esleipendunak kontratuaren exekuzioa hirugarrenekin azpikontratatu nahi badu eta azpikontratistak datu pertsonalak eskuratu behar baditu, esleipendunak Bermeoko Udalari jakinaraziko dio aldez aurretik, zein datu-tratamendu dakarren identifikatuz, Udalak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratazio horretarako baimena eman ala ez. Nolanahi ere, kontratazioa baimentzeko ezinbestekoa da baldintza hauek betetzea:

- Azpikontratistaren datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarrean dagoen legediarekin, plegu honetan ezarritakoarekin eta Bermeoko Udalaren jarraibideekin.

- Esleipendunak eta azpikontrataturako enpresak datu-tratamendurako enkargu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-orri honetan ez hain murriztaileak diren baldintzetan. Kontratu hori Bermeoko Udalaren esku jarriko da, bere eskaera hutsean, halakorik badagoen eta zer eduki duen egiaztatzeko.

f) Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gorde behar ditu, baita kontratuaren xedea amaitu ondoren ere.

g) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, eta Bermeoko Udalaren esku uztea betebehar hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

h) Esleipen-hartzailea den erakundeko langileen datu pertsonalak babesteko beharrezko prestakuntza bermatzea, datu pertsonalak tratatzeko baimena badu.

i) Bermeoko Udalari laguntzea sarbide-, zuzenketa-, ezabapen- eta aurkaritza-eskubideak erabiltzen; tratamendua mugatzea; banakako erabaki automatizatuak ez hartzea (profilak egitea barne) eta, hala badagokio, eramangarritasuna. Esleipendun gertatzen den entitateak arduradunaren datu-tratamenduei dagozkien eskubideak erabiltzeko eskaeraren bat jasotzen badu, Bermeoko Udalari jakinarazi beharko dio, gehienez ere 48 orduko epean.

j) Bermeoko Udalari dagokio interesdunei informazio-eskubidea ematea. Hala, esleipendun gertatzen den erakundeak ez ditu bere informazio-ereduak aurkeztuko, eta Bermeoko Udalak emandakoak edo, datuak biltzeko edozein bide edo kanaletan sartu behar izanez gero, eskatu egingo ditu.

k) Datuen segurtasun-arrakalak jakinaraztea: esleipenduna den erakundeak Bermeoko Udalari jakinaraziko dio, behar ez den atzerapenik gabe, eta, nolanahi ere, gehienez ere 24 ordu igaro baino lehen, posta elektronikoaren bidez, kontratuaren xedea gauzatzeko eta/edo ikuskatzeko ardura duen pertsonari, ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasun-urraketen berri emango dio, eta, horrez gain, eragin ditzakeen ondorioen berri emango dio dokumentazioari eta jakinarazpenari.

16. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide baten bidez babestutako produktuak garatu eta eskura jartzeko xedea duten kontratuetan, Bermeoko Udalari lagako zaio. Nolanahi ere, eta jabetza intelektualeko eskubideak lagatzea baztertu arren, dagokion produktua

erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie sektore publikoko ente, erakunde eta entitateei, SPKLren 3.1. artikuluan aipatzen denari.

Ondorioz, Bermeoko Udalak, jatorrizko produkzio formatuaz gain, jabetza intelektualeko eskubideak eskuratzen ditu eta, bereziki, erreproduzio, banaketa, komunikazio publiko, lortutako lan edo produktuaren eraldaketa eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek modu eskusiboan eskuratzen dira, sinatzen den egunean dagoen edozein ustiapen- eta/edo euskarri-modalitatearen gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako gehienezko iraupenerako, eta munduko herrialde guztietara hedatzen den lurralde-eremurako, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak ez ditu soilik azken lana edo produktua hartzen, baita garapenerako egindako lan, zirriborro, eskema, aurretiazko dokumentu, fluxu-diagrama eta, oro har, jabetza intelektual eta industrialaren xede izan daitezkeen lan guztiak ere. Kontratuaren xedea aplikazioak prestatu eta garatzea denean, honako hauek hartuko dira kontuan: analisi funtzionala, prozesuen definizioa, iturburu-kodeak, kode bitarrak, dokumentazio teknikoa, erabilera-eskuliburuak, garatu beharreko programa edo ordenagailu-programak eta, oro har, kontratua gauzatzearekin zerikusia duen edozein informazio.

Kontratutako lanaren emaitzan sartuko diren kontribuzioen gainean egon daitezkeen hirugarrenen erreserba eta legezko eskubideen berri eman beharko dio zehatz-mehatz enpresa kontratistak Bermeoko Udalari. Kontratistaren betebeharra da eskubide eta erreserba horiei lotutako elementu guztien erabateko erabilgarritasuna bermatzea, eta horrek ekar ditzakeen kostuak bere gain hartzea.

Kontratista erabateko erantzulea izango da eta bere kargura izango du eskubide horiei buruzko erreklamazio oro, eta Bermeoko Udalari kalte-ordaina eman beharko dio erreklamazioak aurkezteak ekar litzakeen kalte eta galera guztiengatik, ordezkartzaren eta defentsaren ondoriozko gastuak barne.

Esleipendunak edo prestaketan parte hartu duen edonork ezin izango du lana beretzat erabili, ez eta lan horren, filmazioaren, testuen, marrazkien, argazkien edo antzekoen zatirik eman ere; ezin izango du, ez osorik ez partez, edukia argitaratu administrazioaren baimen espresu eta idatzirik gabe. Era berean, ez dute jabetza industrial eta intelektualeko edozein eskubide erregistratuko, baldin eta eskubide horiek kontratutik eratortzen direnen berdinak edo antzekoak badira, eta betebeharrak horrek iraun egingo du, baita kontratua bukatutakoan ere. Nolanahi ere, enpresa kontratista izanen da betebeharrak ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Bermeoko Udalarekin lankidetzan aritzeko eta Bermeoko Udalak erosketa egiteko behar dituen agiri guztiak sinatzeko.

17. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak gainontzekoekin egin ditzakeen azpikontratuak egiteko, SPKLko 215., 216. eta 217. artikuluetan ezarri diren betekizunak betekiko dira.

Behin kontratua esleituta eta, beranduen jota, kontratuaren exekuzioa hasterakoan, esleipendunak idatziz jakinarazi behar dio administrazioari azpikontratuak azpikontratutako duen

prestazioaren zatia zein den, eta baita azpikontratataren identitatea ere; eta egiaztatuko du beraren gaitasuna aski dela betetzeko, bai erabilgarri dituen osagai teknikoei, giza osagaiei eta baita eskarmentuari ere erreparatuta. Baldin eta azpikontratatista azpikontratatu den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia bada, kontratatista, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik. Azpikontratataren gaitasuna egiaztatzea azpikontratua egin eta berehala egin daiteke, baldin eta ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zurtzen bada agiri bidez.

Kontratuaren exekuzioan zehar, emandako informazioan aldaketarik suertatuko balitz edota azpikontratu berriak egingo balira, horren berri eman beharko du berehala eta, azpikontratu berrien kasuan, beti, azpikontratatu den zati berria exekutuzen hasi orduko.

Kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua betetzeko erantzukizun osoa Bermeoko Udalarekin; azpikontratatista kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira erantzule izango. Kontratista ezin du kontratua zati baten azpi kontratatu, ordenamendu juridikoari jarraituta kontratatze gaitasunik ez duten pertsonekin, edo SPKLko 71. artikuluan jaso diren egoeraren baten dauden pertsonekin.

Esleipendunak proposamena aurkezterakoan jasotako azpikontratatzeko asmoekin bat ez datozen azpikontratuak, bai enpresa beste bat delako bai xedearen beste zati batzuen gainekoa delako, azpikontratuak ezingo dira egin udalari jakinarazpena eta justifikazioa bidali eta 20 egun igaro arte, beti be udalak ez badu alde zuzeneko espresuki baimendu.

Kontratistaren erantzukizunpean, ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako 20 eguneko epea itzarotea azpikontratu burutzea ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zurtzen bada agiri bidez.

Udalak frogatuko du esleipendunak kontratuan parte-hartzen duten azpikontratistei egin behar dizkien ordainketak bete direla. Horretarako, esleipendunak udalari bidaliko dio kontratuan parte-hartzen duten azpikontratatisten zerrenda zehaztua, parte-hartzea burutzen denean, haietako bakoitzak dituen azpikontratate-baldintzekin batera, ordainketa-aldiarekin zuzeneko harremana badute. Era berean, haiek ordaindu dituzten egiaztagiria ekarri behar dituzte, behin prestazioa ematea bukatu denean legean ezarri diren epeetan; hain zuzen ere, SPKLko 216 eta 217. artikuluetan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututakoetan, ezargarri den neurrian.

Ordainketak SPKLko 216. artikulua zehazten dituen eran egiten ez direla egiaztatuko balitz, udalak azpikontratistei zuzenean ordaintzeko aukera izango du, SPKLko LI. Xedapen Gehigarriaren 1. atalaren arabera. Ordainketa horien eragina Xedapen Gehigarri berberaren 3. atalean zehaztutakoa izango dira, eta udalari ezingo zaio eragotzi 4. atalean adierazitako atzerapenaren erantzukizuna.

Betebeharrok kontratua betetzeko oinarrizko baldintzak dira, eta, bete ezean, ordenamendu juridikoan xedatu diren ondoreak sortu ez ezik, plegu honetan eta 215.3 artikuluan aurreikusitako zigorrak ipintzeko arrazoia izango da.

Kontratu honetatik jaiotzen diren eskubideak eta betebeharrak lagatzeko, SPKLko 214. artikuluan arautu denari jarraituko zaio.

Esleipendunaren ondorengotza emateko, SPKLren 98. artikulua hartuko da kontutan.

18. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua burutzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

19. KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan aldatu ahalko da kontratua.

Kasu hauetan, eta hasierako prezioaren % 20a gainditzen ez bada, aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Bestelako kasuetan kontratazio organoak aldaketa onartzeko, kontratistaren idatzizko onespena beharko da. Onespena egongo ez balitz, kontratuari amaiera emango zaio, 211.1.g) artikuluekin bat.

Aldaketak SPKLren 207. artikuluan xedatutakoaren arabera bideratuko dira.

20. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren zerbitzu hartzea edo kontratuaren exekuzio egokiaren onespena, kontratua amaitu eta hilabeteko epean egingo da, SPKLren 210.2. artikuluekin bat, horretarako udalak zehaztutako egun eta orduan.

Kontratuaren xedea dela eta, ez da berme eperik aurreikusten.

21. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko (193.3. artikulua).

Azterapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea eta behin betiko bermea atxikitzea edo hurrengoko zigorrak ezartzea (192.2. art.):

- Ez-betetze oso larrien kasuan, 500,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze oso larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egitea zehaztutako data baino zazpi egun beranduago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.

o Agirikoa denean hornidurak ematen direla modu akasdunean edo irregularrean.

o Ez betetze sistematikoa epeetan.

o Udalaren agindu ofizialei jaramonik ez egitea.

o Ez betetzea plegu hauetan ezarritako edozelako baldintza edo epe, aurreikusitako bestelako ondorioen kalte barik.

- Ez-betetze larrien kasuan, 300,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egiterakoan sistematikoa ez den ez betetzea egotea.

o Hornidurak egiterakoan albaranak ez entregatzea, albaranetan formazioa faltatzea edo albaranen informazioa ez izatea benetakoa.

o Ez betetze arinak errepikatzea.

- Ez-betetze arinen kasuan, 150,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze arinak direla hurrengoak:

Aurretik zehaztu ez direnak eta zentzu batean orrietan zehaztutako baldintzak kaltetzen direnean.

Zigorrak kontratazio organoak ezarriko ditu, espediente zehatzaile laburtua izapidetu ondoren.

Ezartzen diren zigorrak edo kalte ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik; behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

C) PRESTAZIOEN EXEKUZIO AKASTUNA

Esleipendunak kontratua akatsekin exekutatu balu, ez betetzearen larritasunarekin bat datozen zigorrak ipiniko dira eta, bakoitzak, ezingo du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, ezta, zigor guztiak batera, % 50. (192.1. art.)

22. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 13., 14. eta 15. atalean xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 24. atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Kontratua amaitzearen ondorioak 211. eta 313. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

Hala ere, kontratu amaitutzat emanda ere, interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

23. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

24. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez egingo da, SPKLaren 166. artikuluan eta hurrengokoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Publizitate bako prozedura negoziatu bidez egiteko arrazoia 168.a) artikulua 1. atalean xedatutakoan oinarritzen da.

Prozedura arrunta izango da, SPKLren 116 eta 117. artikuluei jarraiki.

Esleipena egiterakoan, oinarritzat hartuko diren irizpide eta formulak, laburpen taularen 13. atalean zehaztutakoak izango dira.

25. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko laburpen taularen 15 atalean ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean,

ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldian, deialdira aurkeztu.

Zerbitzuak ematen jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, herritarrei dagokienean, aurrez aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, elebitan burutuko beharko ditu, herritarren eskubide linguistikoak errespetatuz. Udalak euskara erabiliko du bere harremanetan esleipendunarekin, idatzizko zein ahozkoetan.

Hori horrela, betekizun hori bermatzeko ahalmena eduki behar du.

26. DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Dokumentazioa aztertzea: Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, kontratugilearen profilean kontsultatu ahal izango da. Hona hemen lotura: http://bermeo.eus/udalaren_kontratuak.html.

Dokumentazio edota kontratatazioaren ganean egiten diran kontsulta edo erantzunak lotesleak izango dira kontratazio organoarentzat eta kontratugilearen profilean argitaratuko dira SPKLaren 138.3 artikuluaekin bat.

Proposamenak aurkeztea: ondorengo moduan, lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu beharko dira:

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: <http://bermeo.eus/1470.html>

EPEA: Egutegiko 15 egun, gonbitea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Prozeduran parte hartzeko eskaria, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengoko bost egunetan egin beharko da.

Lehiatzaileek artxibo bakarra aurkeztu beharko dute.

Artxiboan laburpen taularen **16. atalean** zehaztutako izena ipiniko da.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena Bermeoko Udalaren aurrean, baldintza agiri administratiboan I. eranskinean dagoen ereduaren arabera.

- b) DEUC agiria. Agiri hori, helbide elektronikoa honetan eskuratu daiteke:
<https://visor.registrodelicitadores.gob.es/>
- c) ABEE bat eratzeko asmoa eduki ezker, baldintza agiri administratiboen IV. eranskinean eredu gisa dagoen aitortpen eredu.
- d) Zerbitzua garatuko duten langileak, goi mailako lizentziadunak edo graduatuak direla, gidatzeko baimena dutela, eta emakume eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa daukatelaren egiaztatpena, gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatuta.
- e) Zerbitzua garatuko duten langileek, euskarari dagokionez Hizkuntzen Europako Erreferentzia-esparru Komunaren C1 maila edo baliokidea daukatelaren egiaztatpena.
- f) Enpresak, administrazioan antzeko lanak burutzen hiru urteko eskarmentua daukalaren egiaztatpena, baldintza agiri administratiboen VII. Eranskinean dagoen ereduaren arabera.
- g) Lan metodologiaren deskribapena.
- h) Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapenen maila neurtzeko ebaluaketa sistema eta adierazleak.
- i) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. **eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

Artxiboetan txertatzen diren agiri guztiak digitalki sinatuta joan beharko dira.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

- 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- 5) Pleguaren VI. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredu nabarmen aldatzen dutenak.
- 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio arduradunak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Hori betetzen ez duten parte hartzaileak kanporatu egingo dira.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Proposamenak aurkeztearen ondorioak: Proposamenak aurkezteak, parte hartzaileak baldintza agiriak onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela suposatuko du.

Prozeduran parte hartzeko, hiru enpresa gonbidatuko dira gutxienez. Euren artean, hutsik deklaratu zen prozeduran parte hartu zuen enpresa gonbidatuko da.

Hala ere, Kontratugilearen Profilean iragarkia argitaratuko denez, horretarako zehaztutako epean parte hartzeko eskaria egiten duten guztiei bidaliko zaie gonbitea.

27. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, proposamenen gutun-azalak irekiko dira, aurkeztutako agiriak aztertuko dira eta bertan antzeman ditzaketen akats edo gabeziak zuzentzeko epea emateko aukera izango da. Horrela, aipatutako agiriak onartzen direnean, hala badagokio negoziaketa hasiko da.

Administrazio-baldintza zehatz orri hauetan esleipenerako irizpide bezala ezarritako edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

Kasu honetan, parte hartzaile bakoitzak aurkeztutako proposamena ikusita, balorazio irizpide bakoitzean izandako eskaintza hoberenaren informazio taula bidaliko zaie parte hartzaile guztiei, beste lehiatzaileen nortasuna babespean mantenduta.

Informazio bidalketa emailaz egingo da eta, informazio hori jaso eta hiru eguneko epean, eskaintza hobetzeko aukera emango zaie parte hartzaileei.

Hobetzeak aurkezteko fasean proposamen berririk aurkezten ez duenari, hasieran aurkeztutako proposamena baloratuko zaio.

Negoziazioaren arduraren laburpen taularen **3. atalean** zehaztutako teknikariarena izango da, departamentu juridikoaren laguntzarekin egingo duena.

Behin negoziazioa amaituta, negoziazioaren arduradunak eskaintzak modu beharokorrean sailkatuko ditu eta espedientea kontratazio-organoari bidaliko zaio kontratuaren esleipena egiteko. Bertan zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko xedapenak

Baina errekerimendua bideratu baino arinago, eskaintzaren bat anormalki baxua den edo ez egiaztatu beharko da. Horretarako laburpen taularen **14. ataleko** irizpidea hartuko da kontutan.

Eskaintzaren bat anormalki baxutzat emango balitz, SPKLren 149. artikuluan jasotakoak betetzen direlako, aipatutako artikuluan jasotako prozedura jarraituko da, kontutan edukita lehiatzaileak 5 laneguneko gehieneko epea edukiko duela, komunikazioa jasotzen duenetik, eskaintza justifikatzeko.

Epe hori igarota, kontratuaren arduradunak aztertu eta proposamena onartu edo kanporatzeko proposamen arrazoitua egingo du.

Etleipena egin aurretik, kontratuaren arduradunak, puntu gehien lortu dituen parte hartzaileari errekerimendua egingo dio, 10 laneguneko epean agiri hauek aurkeztu ditzan:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
 - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen ahalorde eskritura edo egiaztagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Sinatzailearen NAN agiriaren fotokopia.

- Espainiarrak ez diren enpresek, baldin eta Europar Erkidegoko estatu kideetakoak edo Europako Eremu Ekonomikoaren Ituna izenpetu duten estatuetakoa badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute SPKLko 67 eta 68 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Berebat, atzerriko enpresek bulego bat irekita izan behar dute Espainian, eragiketak egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatu, eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon.

Atzerriko enpresek adierazpena aurkeztu behar dute Espainiako edozein ordenako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzeari buruz. Hori, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortzen diren gorabehera guztiei begira. Adierazpenean, halaber, uko egingo diote lizitatzaileari egoki lekiokkeen jurisdikzio-foruari.

- Lizitazioan hainbat enpresaburuk hartuko badute parte aldi baterako batasun bat eratuz, bakoitzak bere nortasuna eta gaitasuna egiaztatu beharko ditu, eta izenpetzen duten enpresaburuen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea zein diren adierazi. Berebat, batasunaren ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu behar dute, kontratua hasi eta bukatzen den arte sortzen diren eskubideak eta betebeharrak betetzeko ahalmenarekin. Hala ere, enpresek ahalorde mankomunatuak ere eman ditzakete, kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

- c) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VII. eranskina).

- d) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VI. eranskina).
- e) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- f) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldiko bada, edo EJZren azken ordainagiria edo salbuetsita egotearen egiaztatzea, gainerako kasuetan. Beti ere zerga horren matrikulan bajarik eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da.
- g) Behin betiko bermea aurkeztu.
- h) Beste enpresen gaitasuna erabiltzeko asmoa agertu badu, enpresa horien konpromisoa aurkeztu, baliabide nahikoak izango dituela egiaztatzeko.
- i) Kontratua exekutatzeko konprometitutako baliabideak benetan dauzkala egiaztatzeko agiriak aurkeztu.
- j) Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete ditzan. (XIII. eranskina).

* Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan izena eman badago, a), b), c), d), e) eta f) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordezkari haur aurkeztu beharko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa izena emanda dagoen indarreko egiaztatzea.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekoan, administrazioak edo notarioak behar bezala egiaztatu behar ditu.

Horrela egingo ez balu, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta zerrendako hurrengoari errekerituko zaio aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Ondoren, kontratuaren arduradunak, bidalitako errekerimendua era egokian bete dela egiaztatuta, esleipen proposamena Kontratazio Organora bideratuko du, esleipena egin dadin.

28. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organora proposamena bideratu eta hurrengoko egutegiko 5 eguneko epean egin beharko da esleipena.

Esleipen irizpide bakarra prezioa balitz, esleipena, proposamenak zabaldu eta egutegiko 15 eguneko epean egingo da gehienez. Bestelako kasuetan, gehienezko epea hile bikoa izango da.

Horrela egingo ez balitz, lehiatzaileek beraien eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute eta horrek ez diete inolako eraginik sortaraziko.

Behin esleipena eginda, kontratua agiri bidez formalizatuko da, esleipendunari esleipena jakinarazi eta hurrengoko 15 laneguneko epean.

Esleipendunak epe horretan kontratua sinatuko ez balu, lizitazio prezioaren (BEZa kanpo) % 3ko zigorra ezarriko zaio, behin betiko bermearen kontura joango dena lehendabizi holakorik ezarrita egon ezker.

Kasu honetan, hurrengo geratu denari esleitu zaio kontratua, aurreko atalean zehaztutako errekerimendua egin eta bete ondoren.

Gainera ABEE eratzeko asmoa agertu izan bada, ABEE eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztuko ez balitz, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta bertan behera utzi ahal izango da, SPKLaren arabera, eta zerrendan hurrengo geratu denaren aldeko esleipena egingo da.

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Konkretuki, egin ahal izango da korreo elektronikoz, lehiatzaileek edo hautagaiek euren proposamenetan zehaztutako helbidean.

Kontratazio-organoak egingo dauan esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritik egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratatistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berorri gauzaten hasi.

Behin kontratua formalizatuta, formalizazioaren iragarkia eta kontratua bera kontratugilearen profileen argitaratutako da, gehienezko egutegiko 15 eguneko epean. Formalizazio iragarkia, SPKLren III. eranskinean zehaztutako gutxiengo informazioa jaso beharko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

29. KONTRATUARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, SPKLren 152. artikuluekin bat.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, kontratua formalizatu aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Zentzu honetan, lizitatuak berariaz onartzen du sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legeriarekin eta plegu honetan xedatutakoarekin bat etortzea.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Era berean, euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean ezberdintasunik egongo balitz, euskarazko testuak dioenak izango du lehentasuna.

31. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, laburpen taularen 20. atalean zehaztutako errekurtsuak aurkeztu daitezke.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

